



Usurbilgo Udala

DIRULAGUNTZEN BATZORDE OROKORRAREN

EBAZPEN - PROPOSAMENA

ETXEBIZITZA ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA

Ikusita

Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2005eko abuztuaren 18an, behin betiko izaerarekin.

Ordenantza honen 1. atalean Norgehiagoka Erregimeneko dirulaguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak dirulaguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

2021ko apirilaren 7an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza oinarriak. Eskakerak aurkezteko hogeitun egun balioduneko epea eman zen, 2021ko maiatzaren 5a izanik eskaerak aurkezteko azken eguna.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, 7 eskaera aurkeztu dira.

Hirigintza saileko teknikariak txostena egin du.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2021-04-07)

EBAZPEN - PROPOSAMENA

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak **EBAZPEN-PROPOSAMEN** hau luzatzen dio Alkate-Lehendakariari:

LEHENENGOA: Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza kopuru hauek onartzea:

Onuradura	Zenbatekoa
ANDREA CAIÑA FERNANDEZ	3.200,00 €
IGNACIO RIVERO URDIAIN	3.200,00 €



Usurbilgo Udala

ENEKO GOLDEROS ESTEBAN	4.000,00 €
IAGOBA BERRA MORANTE	1.000,00 €
MARIA MARTINEZ LOPEZ	2.500,00 €

BIGARRENA: Dirulaguntza eskaera hauek ez onartzea:

Eskatzailea	Arrazoa
LEYRE BARREÑA GOIKOETXEA	Diru sarrera gordin gehienekoa gainditu da bi urteetan
VERÓNICA GARCÍA CALAHORRA	Eskaera epez kanpo aurkeztua

HIRUGARRENA: Ebazpen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesatuak alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango du GAOn iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

LAUGARRENA: Aipatutako epean alegaziorik ez balitz aurkeztuko, Tokiko Gobernu Batzarrak dagokion erabakia hartuko du

BOSGARRENA: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Usurbilen, sinaduraren datan.

Batzordeko idazkaria
Garazi Etxeberria San Miguel